

e) Aldaketa Klimatikorako Aliantza: mundu mailako eta estatu mailako ikerketa zentroen sarea, behategiak eta gainontzeko Aldaketa klimatikoaren aurkako eragileen sarea osatu.

f) Aldaketa Klimatikoaren Dokumentazio Zentroa.

Aldaketa klimatikoaren inguruko proiektuen bizkortzaileak, egitasmo berritzaileen diseinua eta garapena azkartzeko Gipuzkoako Ekonomia berdearen trantsizioan: Circular Recycling Hub eta Renewable Energy Hub. Baliabideen erabilpenean eraginkorra den Ekonomia hipokarbonikoa, BEG isurketetan baxua, Ekonomia Zirkularra eta Bertako ekonomiari laguntzen diona. Honela kontsumitzaileetatik gertu dagoen ekonomia izango da oinarritzko produktuen ekoizpena gertukoa den aldi berean. Sail hauek GAABEren ekintza lerroak garatzeko erabilgarriak izango dira (hauek ere Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren alorreko plangintzen pean egongo dira ondorengo gaitetan):

a)Ekonomia Zirkularren sustapenean Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari laguntza eman.

I+G+B sustatzea erakunde publiko eta pribatuen arteko elkarlanerako negozio-ereduetan; zehazki, Gipuzkoan ekonomia berderako bidea egitea bultzatzen dutenetan.

Aldaketa klimatikoaren aldeko gipuzkoar ekonomia sustatzeko tendentzia eta egitasmoen bilduma, azterketa eta hautaketa (baren eta kanpoko benchmarking).

Eragileen clusterren sorkuntza eta dinamizazioa.

Proiektuka antolatzen diren eragile anitzetako lan taldeak osatu eta dinamizatu (foru departamentuak, tokiko eta eskualde mailako erakundeak, Eusko Jaurlaritza, sozietate publikoak, enpresa pribatuak, unibertsitateak, hezkuntza profesionaleko zentroak, zentro teknologikoak, aberasteko asmorik gabeko erakundeak, beste herrialdetako erakundeak, et abar)

Emaitzen balidaziorako habian jarriko dira proiektu frogatzaileen diseinu, pilotaje eta garapena. Proiektu hauen denbora errentagarritasuna eta emaitzen itzulkin kontu ematea egingo da (balio publiko zein pribatuan)

Sare publikoa zein pribatuak barneratu bitartean erreplikapenaren eta finkaketaren sustapena. Zentroaren rola arragoarena izango da, garaipen formulak lortu arte, baina fase honetatik haratago ez ditu interesik adieraziko.

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiarekin eta 2050ko Gipuzkoako Iraunkortasun Energetikoaren Estrategiarekin koordinazioan, energia berriztagarrien sorkuntza garapenerako autokontsumoaren sustapena egingo du.

i)Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiarekin eta 2050ko Gipuzkoako Iraunkortasun Energetikoaren Estrategiarekin koordinazioan, eredu energetikoa aldatzera bideratuta dagoen tokiko ehun ekonomiko berritzaileen sustapena landuko du.

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiarekin eta 2050ko Gipuzkoako Iraunkortasun Energetikoaren Estrategiarekin koordinazioan, ibilgailuen erregai fosilei hautabideak bilatzen dituzten energien trantsizioan ekintzak sustatu.

k)Gipuzkoan garapen eredu hipokarbonikoa gauzatu ahal izateko irtenbide zehatzak eta baliagarriak diren ekintzak garatu. Hain zuzen ere ekonomia zirkularrean eta birziklapenean, autokontsumorako eta auto sorkuntzarako energia berriztagarrien ezarpenean, beti ere Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak ezartzen dituen plangintzen ara behera eta honekin elkarlanean.

3. Aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan informazioa eta herritar hezkuntza. Sail hau, Gipuzkoako sisteman fenomeno honek dauzkan efektuak ezagutu nahi dituzten kontsultei eta bisitei ( birtualak/ zuzenekoak, norbanakoak zein taldekakoak) bideratuta dago. Garatu beharreko programak profil anitzetako hartzaileei bideratuko dira: tekniko/zientifikoak, hiritargoa, enpresa eta medioak. Erabili beharreko hizkuntzak euskara eta erdera izango dira, nahiz eta mami batzuetan ingelera eta frantsesa erabiltzeko aukera izan. Aldez aurretik, GAABEaren ondorengo ildo estrategikoei zerbitzua emango diete:

a)Aldaketa klimatikoaren inguruko hezkuntza eta komunikazio plana definitu eta garatu.

b)Fundazioaren goiburuari zein gainontzeko sailen emaitzen hedapenari zerbitzua emango dio. Sail honen lana ez da behategikoarekin nahastuko, honek ikerkuntzara eta dokumentazioari bideratuta baitago, bere izaera zientifiko/teknikoa dela eta era beste eragile mota batzuei zuzenduta baitago.

medio eta gizarte pertzepzio, nahiz azterketa soziologikoak burutzea: ingurumen kalitatearen asebetetze adierazle, aztarna ekologikoaren kalkulua eta helburu sentsibilizatzailea duten hainbat baliabideen kontsumoa adierazten duten erakusleak.

d)Zentroaren aldaketa klimatikorako hezkuntza planaren diseinua eta garapena.

e) Zentroaren komunikazio planaren diseinu eta garapena.

f)Aldaketa Klimatikoaren aurkako borrokaren inguruko eragile laguntzaileen eta baliabide pedagogikoen banku basea sortu.

g)Zentroaren baliabide pedagogikoak eta komunikaziorako baliabideak sortu.

Aldaketa Klimatikoaren aurkako borrokaren inguruko hiritargoaren hezkuntza programa diseinatu eta garatu: ekitaldien urteko agenda, baliabide birtualen katalogoa.

Komunikazio programa: Aldaketa Klimatikoaren aurkako borrokaren gaurkotasuna Gipuzkoan eta medioen arreta.

Webgunearen eta sare sozialen sorkuntza eta mantenua.

k)Gipuzkoako aldaketa klimatikoaren ikasgela birtuala zein zuzenekoaren kudeaketa.

i)Banakako zein taldekako praktika onen garapena: gipuzkoar hiritargoa aldaketa klimatikoaren aurrean.

m)Herritar arreta bulegoa (zuzenekoa, telefonikoa eta webguneak)

#### 4.- 2023ko LAUGARREN URTEKO EKINTZA PLANA

Beraz, eta aurreko ataletan azaldutakoa kontuan hartuta, urtean zehar egin beharreko jarduketa nagusiak hauek izango dira:

1. 2023-2026 urteetarako ekintza-planak garatzea, fundazioaren eguneroko kudeaketetarako orientazioa eta zentzua emango dituen plan estrategikoaren arabera.
2. Fundazioaren Komunikazio Plana zabaltzea, Naturklima Gipuzkoako klima-aldaketan erreferente gisa eta Ekonomia Berdearen (Ekonomia Zirkularra eta Trantsizio Energetikoa) motor gisa kokatzeko.
3. Gipuzkoako klima-aldaketaren Behatokiaren jardueren garapena:
  - a. Gipuzkoako Borondatezko CO<sub>2</sub> Funtsaren garapena eta kudeaketa. Tresna berritzailea da, klima-aldaketaren efektuetara egokitzeko jarduketak, proiektuak eta obrak Gipuzkoan sustatzeko, bai eta berotegi-efektuko gasak murrizteko jarduketa gehigarriak ere, eta karbono-hustulekuak handitzeko Gipuzkoako Azpiegitura Berdeen Ekintza Planean jasotako jarduketaren bidez. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren koordinaziopean garatuko dira ekintzak, funtsaren azken helmugako gardentasunik handiena bermatzeko eta horiek Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategiari (Gipuzkoa Klima 2050) egiten dioten ekarpena bermatzeko. Tresnak erraztuko du Funtsari ekarpenak egiten dizkioten erakundeek zerga-pizgarriak lortzea, Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan aurreikusitakoari jarraikiz.
  - b. Arintzearen eta egokitzearen arloetan ezarritako adierazleen koadroaren analisia, datuak aztertzea eta interpretatzea.
  - c. Gipuzkoako klima-aldaketaren gaineko inpaktuari eta kalteberatasunari buruzko urteko txostena egitea.
  - d. Gipuzkoako BEG isurien inbentarioari buruzko urteko txostena egitea.
  - e. Txosten monografiko txikiak egitea adierazle eta gai garrantzitsu eta interesgarriei buruz, klima-aldaketak Gipuzkoan duen inpaktua aztertzeako orduan.
  - f. Kostaldeko itsasertzeko Behatokiaren ekintzak, 2023. urteari dagozkionak:
    - i. Klima-aldaketaren adierazleen behaketa eta jarraipena.
    - ii. Agertokiak, inpaktuak eta KArI egokitzea. Inpaktuak, kalteberatasuna eta egokitzea.
    - iii. Inpaktuari, kalteberatasunari eta egokitzapenari buruzko txostenak egitea, honako hauetan oinarrituta: itsas mailaren igoeraren ondoriozko uholde-arriskuak, muturreko olatuen ondoriozko inpaktuak lehorrean, hondartzak eta hareatzak atzeratzea, itsasertzeko habitaten galera eta erresilientzia, itsasoko ekosistema berrantolatzea, itsas baliabideen galera eta aukerak, arrisku sozioekonomikoak arrantzaren, turismoaren, portuaren eta osasunaren sektoreetan.

- g. EIT CLIMATE KICren *Pioneers Into Practice* programaren anfitriioia: aurreko urteetako esperientzia positiboaren ondoren, Behatokiaren jardueran laguntzeko aditu bat hartzeko hautagaitza berriro aurkeztea.
- h. Klima Aldaketaren arloan erreferentziazko ekitaldi bat antolatzea Gipuzkoan inaktuaren eta kalteberatasunaren txostenaren aurrerapenekin eta ondorioekin bat etorritik.
- i. Klima Aldaketaren Behatokiaren Control Room-erako hardwarea eta software espezializatua eskuratzea.

#### 4. Circular Recycling HUBeko jardueren garapena.

- a. End of Cycle Circular Hub-en garapena eta kudeaketa: bizitza-itxiera edo material eta produktu emergente berriekin lotutako ekonomia zirkularraren aplikazioa, hala nola motorrak, bateriak eta lur arraroekin eta metal arraroekin lotutako edozein proiektu.
- b. Naturklimak enpresa-sektorearekin eta ekosistema ekintzailearekin duen lotura eta aliantzen sorrera indartzea.
- c. Gipuzkoako enpresa-sektorean dauden Ekonomia Zirkularraren ekimenak indartzen, hobetzen eta sendotzen laguntzea, ekintza hauekin:
  - i. IZNrekin lankidetzan, Gipuzkoan Ekonomia Zirkularreko jarduerak eta ekimenak egiten dituzten enpresa-eragileak identifikatzea eta nabarmenenak balioan jartzea eta zabaltzea, inspirazio gisa balio dezaten eta enpresen arteko lankidetzak sor dadin.
  - ii. GK Recycling-en ikusgaitasuna eta posizionamendua indartzea eta hobetzea (tokiko mailan, estatuan eta nazioartean) , Ekonomia zirkularrarekin konprometituta dagoen Gipuzkoako enpresa-talde gisa.
  - iii. GK Recycling dinamizatzea eta bazkideei laguntzea, Naturklimaren estrategian planteatutako Ekonomia zirkularreko berrikuntza eta ekintzailatza bultzatzeko eta bizkortzeko ekintzekin bat.
  - iv. Etengabeko zaintza teknologikoa eta informazio estrategikoaren zabalkundea ekonomia zirkularrarekin lotutako jarduerak duten enpresentzat: batez ere GK Recycling-en hileko buletinaren bidez, mailing puntualen bidez eta enpresek inprimatuak egindako bileren bidez.
  - v. Ekonomia zirkularraren egoeraren diagnostikoa egitea Gipuzkoako industrian eta ETEetan, 2021ean egindako Ekonomia Zirkularraren eta GJHen Diagnostikoa eguneratzeko eta 2022an garatutako Circular Scan tresnaren laguntzarekin.
  - vi. Gipuzkoako saltokietan Ekonomia Zirkularraren eta GJHen autodiagnostikorako 2022an garatutako "Dendatu" tresnaren kudeaketa eta zabalkundea, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiarekin eta San Sebastián Shops-ekin lankidetzan.
  - vii. Gipuzkoako enpresari/industriari eta ekosistema ekintzaileari lotutako ekonomia zirkularrari eta ekoberrikuntzari buruzko prestakuntza-plataforma sortzea eta garatzea, enpresek talentu espezializatua kaptatzeko atari bat bertan gehituz.
  - viii. Gipuzkoako ETEetan ekonomia zirkularra inplementatzeko gida praktikoa.
  - ix.
  - x. IZNri laguntzea Ekonomia Zirkularraren arloan GAKFri agintzen dizkion mandatuetan.

- d. Recycling Lab Zirkularra garatzea, Ekonomia Zirkularren esparruan Gipuzkoan gara daitezkeen enpresa-ideien eta negozio-aukeren banku gisa. Horretarako, ekintza hauek proposatzen dira:
    - i. 2020an egindako benchmarking-ean sakontzea eta hura eguneratzea, Ekonomia Zirkularren esparruan arrakasta izan duten negozio-eredu arrakastatsuak identifikatzeko eta Ekonomia Zirkularrean interesa duten enpresa gipuzkoarrekin kontrastatzeko eredu horiek Gipuzkoako berezitasunetara egokitzeko duten potentziala.
    - ii. Circular Recycling Lab ekipamendu espezializatuarekin (hardwarea eta softwarea) hornitzea ekonomia zirkularreko berrikuntzarako prototipatzerako, Gipuzkoako enpresetara bideratuta.
  - e. Lurraldeko enpresak babestea eta dinamizatzea Ekonomia zirkularreko negozio-aukerak identifikatzeko, bai eta esparru horretako berrikuntza-proiektuak asmatzeko eta garatzeko ere: networking guneak, hackathoiak, parte-hartze bidezko prestakuntza, arrakasta-kasuen hedapena, negozio-aukera berriak, lantaldeak, 'joint-venture'ak, etab.
  - f. Ekonomia zirkularreko berrikuntza eta ekintzailtza sustatzeko "Enpresen erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz" programaren IV. deialdia, ekintzaile irabazleen kopurua 6ra zabalduz.
  - g. Zirkular Mentoring programaren 2. edizioa, ekintzaile gazteei prestakuntza emateko eta Gipuzkoako ekonomia berdearen startup-ei prestakuntzaren eta networkingaren arloan laguntzeko.
5. Renewable Energy HUBen jarduerak garatzea: Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren kudeaketa-gomendioetan oinarrituta eta Fundazioaren plan estrategikotik abiatuta, ekintza hauen bidez:
- a. Gipuzkoako industriaren deskarbonizazio lehiakorrerako ibilbide-orri bat prestatzen laguntzea.
  - b. Eraldaketa Komunitarioko Bulegoa (Oficina de transformación comunitaria, OTC) babestuz eta lagunduz herritarrentzako eta enpresentzako energia-trantsizioaren arloko zabalkunde, laguntza eta aholkularitzarako. IZNk koordinatuta, Naturklima Gipuzkoako klima-aldaketaren fundazioarekin lankidetzan. Energia-trantsizioa ongizatea da, eta Naturklimak trantsizioaren bide horretan lagunduko du, honako hauen bidez:
    - i. Herritarrei eta enpresei zabalkundea, prestakuntza, laguntza eta aholkularitza eskaintzea.
    - ii. Etengabeko laguntza eta monitorizazioa energia-komunitateek nola funtzionatuko duten ikusteko, lurraldean arlo horretan egiten diren ekintza horien guztien gardentasuna eta trazabilitatea bermatzen laguntzeko.
6. Harremanak eta aliantza estrategikoak ezartzea eragile pribatuekin eta funtsezko erakunde laguntzaileekin toki-, erkidego-, estatu- eta nazioarte-mailan.
- a. Gipuzkoa Basket 2001 SKE-SAD-en LEB ORO gizonezkoen saskibaloi-taldearekin 2022an sinatutako lankidetzak hitzarmena garatzea eta kudeatzea, klima-aldaketaren aurkako borrokaren inguruko sentsibilizaziorako eta prestakuntzarako, ohitura jasangarriak eta klima-aldaketaren borrokari laguntzekoak sustatzeko, herritarrei eta ikasleei zuzendutako

sentsibilizazio-kanpainarako, 2022tik 2023ra bitartean hainbat ekintza gauzatuz, 22-23 denboraldiaren esparruan.

- b. 2022an ADEGIko Ekintzaileen Foroarekin sinatutako lankidetz hitzarmena garatzea eta kudeatzea, indarrak bateratzeko eta jasangarritasun-bokazioa duten enpresari berriei laguntza, babesa, prestakuntza eta mentorizazioa emateko enpresak martxan jartzeko fase desberdinetan. Hau da, haien proiektuak sortzeko, eratzeko, abiarazteko eta sendotzeko lanetan.
  - c. Frantziako Ekonomia Zirkularreko Institutu Nazionalarekin (INEC) lankidetz hitzarmena garatzea eta kudeatzea, Europako proiektuak garatzera bideratuta.
- 7. Toki, erkidego-, estatu- eta nazioarte-mailan KAREN eta Ekonomia zirkularraren foro eta sareetan parte hartzea.
  - 8. Berrikuntza-proiektuen parte-hartzea eta garapena (batez ere nazioarteko bokazioa dutenak, Europako proiektuetan), toki-, estatu- eta nazioarte-eragileekin lankidetzan.
  - 9. Interpretazio Zentroa – Klima Aldaketari buruzko Ikasgela garatzea eta kudeatzea, Fundazioaren zeregin espezifikoetako bati erantzuna emanez: Klima Aldaketaren arloko herritarren informazio- eta hezkuntza-zentro gisa eratzea eta zerbitzatzea, eskura dagoen ezagutza eta informazioa modu grafikoan eta ulergarrian transmitituz eta sistema digitaletan nahiz bestelako prozedura batzuetan oinarrituz, eta arloko beste eragile batzuekin batera sarean. Eta KLIMA BAI 2021-22 ekimenaren esparruan garatutako eduki eta baliabide ugariak bilduz eta haiei jarraipena emanez
  - 10. Naturklima eraikin berriaren instalazioen ekipamendua eta egokitzapena: altzariak, ekipamendu teknikoa, informazio-prozesuetarako ekipamenduak, etab.

## 5. 2023 EKITALDIKO SARREREN ETA GASTUEN AURREKONTUA

| KLASIFIKAZIO EKONOMIKOA                                                              |                            | 2023                  |
|--------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------|-----------------------|
| 1. Kapituluua: Langileria Gastuak                                                    |                            | 414.348 €             |
| 2 Kapituluua: Ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak                                  |                            | 833.034 €             |
| 211 Erainkinak. Konponketa, mantenimendua eta artapena                               |                            | 55.000,00 €           |
| 220.Bulegoko materiales                                                              |                            | 1.350,00 €            |
| 221.Hornidurak                                                                       |                            | 8.000,00 €            |
| 222.Komunikazioak                                                                    |                            | 3.000,00 €            |
| 226.Beste gastu batzuk                                                               |                            | 26.000,00 €           |
| 230. Dietak eta lokomozioa                                                           |                            | 6.000,00 €            |
| 227. Azterlanak eta irizpenak                                                        |                            | 72.300,00 €           |
| 470 Enpresa pribatuei (sariak)                                                       |                            | 90.000,00 €           |
| 470 Enpresa pribatuei (GBC Diru-laguntza)                                            |                            | 121.000,00 €          |
| 227/99. Profesional edo enpresa espezializatuek egindako lanak                       |                            | 450.384,00 €          |
| 2279901. Irudiaren elementuen hobekuntza                                             |                            |                       |
| 2279902. Web-orriaren mantenua                                                       |                            |                       |
| 2279903. Sentsibilizazio eta sustapen-ekitaldi eta kanpainak egitea                  |                            |                       |
| 2279904. Nazioarteko eta estatuko sare eta foroetan parte-hartzea                    |                            |                       |
| 2279905. Argitalpenak idaztea eta hedatzea                                           |                            |                       |
| 2279906. Eragile giltzarri eta erakunde laguntzaileekin lan sareak garatzea          |                            |                       |
| 2279907. Eragile giltzarri eta erakunde laguntzaileekin harremanen segimendua egitea |                            |                       |
| 2279908. Behatokiaren garapena eta sustapena                                         |                            |                       |
| 2279909. Ekonomi Zirkularra ardatzari euskarri eman eta sustatu                      |                            |                       |
| 2279910. 2019-2021eko Plan estrategikoa definitzea Gipuzkoa Klima 2050reko markoan   |                            |                       |
| 2279911. Renewable Energy HUB-en edukiak garatzea eta abian jartzea                  |                            |                       |
| <b>GASTU KORRONTEEN AURREKONTUA</b>                                                  | <b>GASTU TOTALA</b>        | <b>1.247.382,00 €</b> |
| 345. Zerbitzu prestazioak                                                            |                            | 50.000,00 €           |
| 420. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Transferentziak                                     |                            | 675.082,00 €          |
| 451.Transferentzia espezifikoa "Enpresen Erronkak"                                   |                            | 90.000,00 €           |
| 451.Transferentzia espezifikoa "Behatokia"                                           |                            | 72.300,00 €           |
| karbono-fondoko dohaintzak                                                           |                            | 50.000,00€            |
| 439. Kanpoko transferentziak (Europako Proietuak)                                    |                            | 250.000,00 €          |
| 470. Enpresen pribatuen transferenciak                                               |                            | 60.000,00 €           |
| <b>DIRU SARRERA KORRONTEEN AURREKONTUA</b>                                           | <b>DIRU SARRERA TOTALA</b> | <b>1.247.382,00 €</b> |
| <b>KORRONTE EMAITZA</b>                                                              | <b>TOTALA:</b>             | <b>0,0 €</b>          |
| 6 Kapituluua: Inbertsio errealak                                                     |                            | 275.000,00 €          |
| 610. Eraikinaren beste egokitzapen gastu batzuk                                      |                            | 20.000,00 €           |
| 640. Altzariak eta gainerakoak                                                       |                            | 70.000,00 €           |
| 650. Informazioa prozesatzeko ekipoak                                                |                            | 35.000,00 €           |
| Karbono donsoko Inbertsioak                                                          |                            | 150.000,00            |
| 7 Kapituluua: Kapital Transferentzia                                                 |                            | 275.000,00 €          |
| 75. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Transferentzia Inbertsiorako                         |                            | 125.000,00 €          |
| karbono-fondoko dohaintzak                                                           |                            | 150.000,00 €          |
| <b>DIRU SARRERA GUZTIEN AURREKONTUA</b>                                              | <b>DIRU SARRERA TOTALA</b> | <b>1.522.382,00 €</b> |
| <b>GASTU GUZTIEN AURREKONTUA</b>                                                     | <b>GASTU TOTALA</b>        | <b>1.522.382,00 €</b> |

## 6. 2023KO AURREKONTUAREN AZALPEN MEMORIA

### 6.1 Gastu aurrekontua

Naturklimaren gastu garrantzitsuak honako kontzeptu hauei dagozkie. Langileria gastuak, ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak. Lurrak, eraikinak, konponketak, mantenimendua eta artapena. Bulego materiala, hornidurak, komunikazioak, beste gastu batzuk, dietak eta lokomozioa.

Gastuen aurrekontua guztira: 1.247.382€

#### 6.1.1 Langileak

2022ra arte, 5 lankide osatu dute taldea. 2023an beste bat sartzea aurreikusita dago; 6 langile izanez.

Langileen gastua, guztira: 414.348€

#### 6.1.2 Gastu arruntak eta ondare zerbitzuen gastuak

Gastu arrunten eta ondare zerbitzuen gastuak 833.034€ dira guztira. Honako kontzeptu hauen arabera xehatzen da:

Eraikinak. Konponketa, manteni mendua eta artapena Mikeletegi Pasalekua 65 zenbakia, B2 eraikina, 0. solairua

Alokairuen gastua, guztira: 55.000,00€

Bulegoko materiala Bulegoko hainbat materialen eta suntsikorren kostuak.

Bulegoko materialen gastua guztira: 1.350,00€

Hornidurak. Hornigai arruntak sartzen dira, hala nola ura edo argindarra, erregaiak eta produktu basikoak.

Hornigaien gastua guztira: 8.00,00€

Komunikazioak. Kanpoko hosting zerbitzua, SW zerbitzariak eta backup

Komunikazio gastua guztira: 3.000,00€



Hainbat gastu: antolakuntza eta manteni mendu orokorrerako (aholkularitza fiskala, kontu eta laborala, notaritza, et abar)

Hainbat gastu guztira: 26.000,00€

Dietak eta lokomozio gastuak: atal honetan, zentroetako langileen joan-etorriak, dietak eta antzerakoak sartzen dira.

Dietak eta lokomozio gastuen gastua guztira: 6.000,00€

Azterlanak eta irizpenak: Laguntza tekniko klima-aldaketaren behatokiaren zerbitzua garatzeko

Gastuen guztira: 72.300 €

Enpresa pribatuei, "Erronkei" dagozkien sariak

Gatuen guztira: 211.000,00 €

Profesional edo enpresa espezializatuek egindako lanak. Helburu fundazioanalak burutzeko Naturklimak taldeak egiten dituen lanez gain, fundazioaren ardatzetan langile tekniko espezializatuen laguntza izango du. Aurreikusten diren arloak honako hauek dira:

Aholkularitza/ikuskaritza: Atal honetan kanpo talde espezializatuen kontratazioa sartzen dira, hala nola arloko ikerketak burutzeko, zein laguntzarako txostenen lanketa edo datuen ingeniarietza, eta abar

Marketina eta publizitatea: komunikazio planaren bitartez Fundazioaren posizionamendurako laguntza lanak, markaren hobetzea, ekitaldi eta jardunaldien antolaketa, et abar.

Eragile giltzarri eta erakunde laguntzaileekin lan sareak garatzea.

Profesional edo enpresa espezializatuek egindako lanen gastua guztira: 450.384€

### 6.1.3 Inbertsio errealak

Eraikinaren beste egokitzapen gastu batzuk. Egokitzapenerako beste elementu batzuk Eraikinen

beste egokitzapen gastu batzuk: 20.000,00€

Altzariak eta lanabesak: bulegoetan erabiltzen diren altzariak

Altzarien eta lanabesen ataleko inbertsio errealak: 70.000,00€

Informazioa prozesuetarako ekipamenduak Fundazioa operatiboa izan dadin eta mantendu ahal izateko beharrezkoak diren inbertsioak jasotzen dira.

Informazioa prozesatzeko ekipamenduen inbertsio errealak: 35.000,00€

Fundazioaren jarduna garatu eta mantentzeko behar diren inbertsioak aurreikusten dira departamentu horretan.

Karbono Funttsaren proiektuetan egindako inbertsioak: 150.000,00 €

## 6.2 Sarreraren aurrekontua.

Naturklimak 4 sarrera iturri nagusi ditu. Gehiengoduna iturri publikoetatik dator. Bigarrena, European dirua, hirugarrena tasak eta beste zerbitzuak eta laugarrena, babesak.

Sarreraren aurrekontua, guztira: 1.522.382 €

Finantzaketa publikoa: Gehienbat Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusitik dator.

Gipuzkoako Foru Aldundiko kapital transferentziak : 275.000,00€

GFA Transferentzia espezifiko "Enpresen Erronkak": 90.000,00 €

GFA Transferentzia espezifiko "Behatokia": 72.300,00 €

Gipuzkoako Foru Aldundiko inbertsio transferentziak: 125.000,00€

European Proiektuak: Europar proiektuen deialdietan partaidetzaren bitartez.

Europar proiektuen sarrerak: 250.000,00 €

Karbono-fondorako dohaintzak: 200.000 €:

- Gastu arruntetarako: 50.000 €.

- Kapital transferentzien diru-sarreretarako: 150.000 €

Inbertsioetarako sarrerak: 125.000 €

Tasak eta beste zerbitzuak: konkurrentzia gabeko erregimenaren bitartez emandako zerbitzuen diru sarrerak, laguntza, atzerrirako misioetan euskarria, et abar.

Enpresei zerbitzuak emateagatik sarrerak: 50.000,00€

Babesleak: enpresa babesleen bitartez lortzen diren diru sarrerak

Babesleen bitartez lortzen diren sarrerak: 60.000,00€

## 2022ko eta 2023ko aurrekontu-diferentzien txostena

**I. kapituluko gastuetarako**, 57.973,13 € handitzea aurreikusten da, neurri batean 2022arekiko aurreikusitako % 3,5eko igoeragatik eta neurri batean HUBetarako eta Klima Aldaketari buruzko Ikasgelarako teknikari bat sartzea aurreikusten delako.

**II. kapituluko gastuetarako** 622.034 euro erabiliko dira, batez ere estrategikotzat jotzen diren ekintza hauetarako:

1. Borondatezko Karbono Funtsaren kudeaketa eta dinamizazioa (105.000 €).
2. Gipuzkoa Basketekin egindako hitzarmenaren esparruan egin beharreko klima-alaketari buruzko sentsibilizazio-kanpaina (121.000 €).
3. End of cycle Circular Hub-aren (140.000 €) garapena.
4. IZNri laguntzea Naturklimaren egoitza berria hartuko duen Eraldaketa Komunitarioko Bulegoan, haren Renewable Energy HUBen (85.000 €).

Ikus daitekeenez, ekintza berri horiek garatzeko kostuak gastua 455.000,00 €-tan handitzea dakar, lehen aipatutakoa baino gehiago; beraz, II. kapituluko gainerako gastuak lehentasunen arabera doitu behar izan dira, lortzea aurreikusten diren diru-sarreretan oinarrituta.

**VI. kapituluko gastuetarako**, 2022ko gastuak 225.000,00 € handitzea aurreikusten da, Borondatezko Karbono Funtsari dagozkion azpiegitura berdeetako inbertsioak 150.000,00 €-ko inbertsioarekin garatzea aurreikusten baita; gainera, Naturklima eraikin berriaren instalazioak hornitu eta egokitu beharko ditugu: altzariak, ekipamendu teknikoa, informazio-prozesuetarako ekipamenduak, etab.

## Informe diferencias presupuesto 2022 y 2023

Para los **gastos del Capítulo I**, se prevé aumentar en 57.973,13 €, en parte por el aumento previsto del 3,5% con respecto al año 2022 y en parte por prever la incorporación de 1 persona técnica para los HUBs y el Aula de Cambio Climático.

Para los **gastos del Capítulo II**, se destina la cifra de 622.034 euros fundamentalmente a las siguientes acciones consideradas estratégicas:

1. La gestión y dinamización del Fondo de Carbono voluntario (105.000€)
2. la campaña de sensibilización en cambio climático a llevar a cabo en el marco del convenio con el Gipuzkoa Basket (121.000€)
3. El desarrollo del End of cycle Circular Hub (140.000€)
4. El apoyo a la DGMA en la Oficina de Transformación Comunitaria que albergará la nueva sede de Naturklima, en su Renewable Energy HUB (85.000€).

Como puede verse, el coste para el desarrollo de estas nuevas acciones supone un incremento de gasto de 455.000,00€, mayor que el mencionado anteriormente, por lo que se ha tenido que ajustar en base a prioridades el resto de gastos de capítulo II en base a los ingresos que se prevén obtener.

Para los **gastos del capítulo VI**, se prevé aumentar en 225.000,00 € los gastos del año 2022, dado que se prevén desarrollar las inversiones en infraestructuras verdes correspondientes al Fondo de Carbono voluntario con una inversión de 150.000,00€; y además necesitaremos equipar y adecuar las instalaciones del nuevo edificio Naturklima: mobiliario, equipamiento técnico, equipos para procesos de información, etc.

I., II. eta VI. kapituluetakoko gastu-aldaketa horiei guztiei aurre egin ahal izango zaie **diru-sarreraren igoerari** esker (+190.372€); izan ere, Europako proiektuetatik espero ziren diru-sarrerak murriztu arren, igoera egotea aurreikusten dugu, bai IZNri esker (+200.000€) eta bai karbono-funtsarengatiko enpresen dohaintzei esker (+200.000,00 €).

Estas variaciones de gastos en los capítulos I, II y VI se verán soportados gracias al **aumento de ingresos** (+190.372€) que, pese la reducción esperada de ingresos por proyectos Europeos, prevemos fundamentalmente vía la DGMA (+200.000€) y vía las donaciones de empresas por el fondo de carbono (+200.000,00€).